Hernaniko Udala

BERTATIK ELIKATUZ LANERATZE ENPRESA EGITASMOARI DIRU-LAGUNTZA EMATEKO LANKIDETZA HITZARMENA

ELKARTU DIRA:

ALDE BATETIK, **XABIER LERTXUNDI ASTEASUINZARRA** jauna, Hernaniko Udaleko (IFZ: P2004300F) alkatea.

BESTE ALDETIK, **JON AMALLOBIETA ZUGAZARTAZAR** (NAN zk.: 78871117T) eta **FEDERICO PACHA GOICOECHEA** (NAN zk.: 34092044H) jaunak, (NAN zk.: 78871117T) BERTATIK ELIKATUZ SLren izenean (IFZ: B10745008) eta ordez, jakinarazpen ondorioetarako helbide hau duena: Ibaiondo poligonoa 27, 3. Solairua, Hernani 20120, Gipuzkoa .

Bi aldeek, ordezkatzen dutenaren izenean eta ordez eta hitzarmen hau gauzatzeko beharrezkoa den lege gaitasuna daukatela adierazten dute.

AURREKARIAK:

A. HERNANIKO ELIKADURA BURUJABETZAN SAKONDU ETA 1GO SEKTOREAREN SUSTAPENERAKO ESTRATEGIAREN LABURPENA.

1. GOBERNU MARKOAK

Azalpena:

Elikadura mahaiak sektorearen planifikazio estrategikoa eta horren baitan ematen diren ekintzen koordinazioa egingo du. Bertan parte hartzen duten eragile/proiektuak mahaiaren planifikazioaren baitan aritu beharko dira. Existitzen diren baliabideak zertarako eta nola erabili behar diren erabakiko du. Hilean behin bilduko da eta eragile bakoitzaren ordezkaritza izango da. Koordinazio teknikoa arduratuko da bileren deialdi, gai ordenen prestaketaz eta aktak jasotzeaz.

2. NEKAZAL LURRAK

Azalpena:

Elikadura burujabetzan bidean, ezinbestekoa da Hernanin ekoizten diren elikagaien kopurua handitzea. Horretarako, baliabideak (lurrak eta instalazioak) eta nekazari berrientzako formakuntza eta instalazio prozesuak bermatu behar dira. Zentzu honetan, lurrak erosi eta nekazal ustiapen berriak martxan jartzea planteatzen da, Hernani inguruan, nekazaritza bideratuko den gerriko agroekologikoa sortuz. Gainera bestelako jarduerak planteatuko dira sentsibilizazio eta formakuntzaren ildoaren baitan (baratza eskolak, hitzaldiak, tailerrak). Horretarako azpiegiturak egotea aurreikusten da etorkizunean.

ESKU4cc632d8-9f6b-4483-8063-e701e75ab9b2

3. NEKAZAL ESKOLA

Azalpena:

Aurretik aipatu den bezala, ezinbestekoa da ekoizpena handitzea eta horretarako nekazari eta abeltzain berriak sektorera erakarri behar dira. Zentzu honetan planteatzen diren ekintzak hurrengoak lirateke:

• Nekazaritza formakuntza eskaini bai ustiaketa berria martxan jarri nahi duten pertsonei bideratuta, bai jada existitzen diren ustiaketan langile aritzeko bideratuta eta baita nekazaritza profesionalentzako ere.

• Nekazaritzan aritu nahi duten pertsonentzako praktikaldi ordainduak eskaini, HENASEKO baserritarren etxaldeetan aritzeko.

4. TRANSFORMAZIOA

Azalpena:

Produktuen transformazioa ekoizpenari balio erantsia gehitzeko eta komertzializazio aukerak handitzeko planteatzen da. Zentzu honetan transformazio gune/sukalde zentralaren proiektua proposatzen da. Gainera, honen kudeaketa laneratze enpresa batek egitea proposatzen da insertzio sozio-laborala sustatuz.

Elikagaien transformazio zerbitzua aurreikusten da: Hernani eta inguruko nekazari eta abeltzainentzako zerbitzu bat izango da. Zerbitzu honen bidez nekazari eta abeltzainek beraiek ekoiztutako produktuei balio erantsia emateko aukera izango dute. Ekoizleek beraien elikagaiak birbaloratu eta beraien kabuz merkaturatu ahal izateko zerbitzua izango da. Adibide bat aipatzearren: nekazariek baratzetik jaso berri dauden letxugak transformazio gunera eraman eta bueltan IV gamako letxuga garbi eta ontziratuak jasotzeko aukera izango dute. Transformazio guneak 1.sektoreko produktu anitzak eraldatzeko eta kontsumo produktu (IV gama, yogurrak, gazta, haragi bolak, hanburgesak...) bilakatzeko gaitasuna izango du.

5. KOMERTZIALIZAZIOA, BANAKETA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Azalpena:

5.1.- KM ZERO ESPAZIOA: komunitatea, salmenta puntua eta sentsibilizazioa.

Hernaniko elikagai eta produktuak eskainiko dira bertan: Hernaniko produktu freskoa eta transformazio gunean transformatutakoa. Hala ere, ez da salmenta puntu huts bat izango, espazio honen bokazioa haratago doa eta kontsumo arduratsu eta jasangarriaren alde egingo duen komunitate bat artikulatu nahi da espazio honen inguruan. Bide horretan, zeregin nagusietako bat herritarrak eta herriko eragile eta agenteak sentsibilizatzea izango

ESKU4cc632d8-9f6b-4483-8063-e701e75ab9b2

da, komunitatearen parte izateko pausua ematera gonbidatuz interesatu oro. Besteak beste, hurrengo sentsibilizazio ekimenak burutzea aurreikusten da:

- Ikastetxeetan sentsibilizazio saioak.

- Herriko taberna eta ostalarientzako KM zero eskaintzaren gaineko informazioa-buletina.

- Guraso taldeentzako sentsibilizazio saioak.

- Herriko eragile sozialekin koordinatuz hitzaldi eta sentsibilizazio saioak antolatu.

5.2.- Hernani KM 0 marka.

Kontsumo arduratsuaren eta 1.sektorearen sustapena helburu duen aliantza honek funtziona dezan, gakoetako bat komertzializazio estrategia indartsu bat edukitzea izango da. Horretarako, marka bateratu bat edukitzea ezinbestekotzat jotzen da. Elikadura mahaian behin eta berriz atera den gaia da eta proiektu honen bidez marka bateratu hau sortzea bilatuko da beste hainbat gauzaren artean. Horretarako, komunikazio enpresa profesional baten zerbitzuak kontratatu nahi dira eta beraien eskutik Hernani KM 0 marka diseinatu eta irudi korporatibo bat landu nahi dira. Honen bidez, ostean komunikazio kanpaina indartsu bat egin ahal izateko herri mailan.

5.3.- Banaketa sistema bateratu eta jasangarria.

Aliantza honen baitan aurreikusten diren lan lerro edo balio kateko fase ezberdinetan banaketa behar ezberdinak identifikatu ditugu. Ekoizleek beraien produktuak KM ZERO espaziora edota transformazio gunera eramateko beharra izango du; laneratze enpresak enpresei tupper zerbitzua edota sukalde eta jantoki zerbitzua eman ahal izateko banaketa zerbitzu beharko dute; eta HerriLur-ek kudeatzen duen merkaturatze gunera ere azken kontsumitzaileei Hernaniko produktuak etxera eraman ahal izateko zerbitzua beharko du. Gure proposamena banaketa sistema bateratu eta jasangarri bat sustatzea izango da.

6. Zeharkako lerroak: inklusio soziolaborala eta genero ikuspegia.

Egitasmo honen baitan enplegu aukera ezberdinak sortzea aurreikusten dugu. Zehazki, 2024ra bitarte 10 enplegu aukera berri sortzea da aurreikuspena. Hipotesia hurrengoa da: Geroz eta kontsumo arduratsu gehiago, ekoizpen gehiago, elikagai transformazio gehiago, banaketa gehiago eta enplegu aukera gehiago. Kontsumo arduratsua igotzen bada HERRILURen lan aukera gehiago sortuko dira; udalarekin elkarlanean lur gehiago erosi eta HENASEk ekoizpena handitzen badu nekazaritza edota abeltzaintza esparruan enplegu aukerak sortuko dira eta berdina transformazio gunean eta banaketan ere. Enplegu aukera hauek gizarte bazterketa arriskuan dauden edota langabezia egoeran dauden pertsonei gizarteratze eta laneratze prozesuak eskaintzeko balio beharko dute. Bide honetan, egoera administratibo irregularrean dauden pertsonen erregularizazio prozesuak ahalbidetzea ere bilatuko da. Izan ere, gizarte bazterketa arrisku egoeran dauden pertsonen ehuneko handi bat prozesu migratzaile baten ostean iritsi berri diren eta lan baimenik ez duten pertsonak dira.

ESKU4cc632d8-9f6b-4483-8063-e701e75ab9b2

B. BERTATIK ELIKATUZ LANERATZEN ENPRESAREN SORRERA.

Bertatik Elikatuz S.L., laneratze eta gizarteratze enpresa berria da. Ondoko bi eragile hauen aliantza gisa sortuta. Batetik, Gure Elikagai enpresa, tokiko produktuekin eta elikadura burujabetzaren arloan aditua eta frogatutako esperientzia duen enpresa (egunero 600 langile tokiko produktuen bidez elikatzen duen enpresa sukalde baten kudeatzailea). Bestetik, ZABALDUZ GIZARTE EKIMENEKO KOOPERATIBA ELKARTEA, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroko E20 000162 0000 zenbakia duenak, esku-hartze sozialean eta bazterkeria egoeran dauden pertsona eta kolektiboen laneratzea eta gizarteratzean eskarmentu zabala duena. Zentzu honetan Hernaniko Udalarekin eta Beterri-buruntza Udalekin hainbat proiektu sustatzen ditu elkarlanean: batetik, Auzo-zaintza proiektua Hernaniko udalarekin, eta bestetik, Enplegu-Sozialeko egituraren dinamizazioa Beterri-Buruntza Udalarekin.

Horretaz guztiaz gainera, Bertatik elikatuz laneratze enpresak Zaragüeta Fundazioarekin batera Intsusadi baserrian nekazari eta abeltzain berrien formazio eta akonpainamendu zerbitzua diseinatu du, Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundu duena, eta Hernaniko Elikadura Sistema iraunkor eta Burujabearen parte oso garrantzitsua izango dena. Kasu horietan ere Bertatik Elikatzen laneratze eta gizarteratze egitura erabiliko da nekazari eta abeltzain bereri horiei babesa eskaini eta beraien laneratzen prozesuan babesa emateko.

C. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN EGITASMOA, ENPLEGUA ETA GIZARTE LANERATZEA SUSTATZEKO "ELKAR-EKIN-LANEAN" INBERTSIOAK ETA BIDERAGARRITASUN PROIEKTUAK.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2022ko irailaren 7ko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez, onartu ziren Enplegua eta gizarteratze-laneratzea sustatzeko "elkar-ekin-lanean" , inbertsioak eta bideragarritasun proiektuak diruz laguntzeko oinarriak.

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa, Inguruneko Departamentuko Foru Diputatuak, 2022ko abenduaren 29an ebatzi zuen ZABALDUZ KOOP. ELKARTEAren BERTATIK ELIKATUZ LANERATZE ENPRESA MARTXAN JARTZEKO egitasmoa diruz laguntzea.

Hernaniko Udalak interesezkotzat jotzen du BERTATIK ELIKATUZ eta ZABALDUZ GIZARTE EKIMENEKO KOOPERATIBA ELKARTEAk aurkeztu duten *Bertatik Elikatuz laneratze enpresa martxan jartzeko* egitasmoa, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 legeak eta Diru-Laguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) aurreikusitakoarekin bat etorriz, egokitzat jo da lankidetza hori arautuko duen hitzarmen bat ezartzea, honako hauek kontuan hartuta:

ESKU4cc632d8-9f6b-4483-8063-e701e75ab9b2

BALDINTZAK:

1. XEDEA:

Elikagaien eraldaketa gunea kudeatuko duen laneratze enpresa proiektuaren sustatzea, Hernaniko Elikadura Sistema Iraunkor eta Burujabea eraikitzeko helburu estrategikoaren lan ardatzetako bat izanik.

2. JARDUERA PLANA:

Laneratzea eta gizarteratzea: Egitasmo honen baitan enplegu aukera ezberdinak sortzea aurreikusten dugu. Zehazki, 2024 urtera bitarte 10 enplegu aukera berri sortzea da aurreikuspena. Hipotesia hurrengoa da: Geroz eta kontsumo arduratsu gehiago, ekoizpen gehiago, elikagai transformazio gehiago eta banaketa gehiago, enplegu aukera gehiago. Hernaniko 1go sektorearen sustapenerako aurkeztu eta finantziazioa lortu duten proiektu guztiak batuta, 58 laneratze postuetarako finantzazioa lortu da.

Hernaniko Sukalde zentrala eta Eraldaketa Gunea: 1go sektorearen biziberritze estrategiak herriko ekoizleen ekoizpenari balio-erantsia gehituko dion Eraldaketa Gune eta Sukalde Zentral bat instalatzeko beharra dauka.

Banaketa Zerbitzu Kolektiboa: Gure proposamena banaketa sistema bateratu eta jasangarri bat sustatzea izango da. Horretarako Laneratze Enpresaren bidez lanpostu bat gehiago sortuko da Elikadura Sistema osatzen duten eragile guztiei banaketa zerbitzua eskaintzeko.

Hernani KM0: Marka eta Merkaturatze Gunea: Marka honen bidez hainbat dira lortu nahi diren helburuak: balio-katea osatzen duten eragile ekonomiko guztien bideragarritasuna eta lehiakortasuna handitzea; Hernaniko elikadura sistema ikusgarriagoa egin eta proposatzen diren balioekiko hiritarren atxikimendua sustatzea; eta Hernaniko identitate kolektiboa sustatu eta hiritarrak trantsizio sozio ekologikoaren parte egitea.

Gobernantza: Elikadura mahaia eta balio-katearen planifikazio estrategikoa: Elikadura mahaiak sektorearen planifikazio estrategikoa eta horren baitan ematen diren ekintzen koordinazioa egingo du. Edonola ere, mahaian parte hartzen duen eragile bakoitzak autonomia osoa du bere erabakiak hartu eta exekutatzeko, eta zentzu horretan, udala da, gobernu taldea, bere erabakiak hartu eta exekutatuko dituena.

ESKU4cc632d8-9f6b-4483-8063-e701e75ab9b2

3. PLANAREN ERAGIN EKONOMIKOA ETA SOZIALA:

GIZARTERATZE ETA LANERATZEAN EDUKIKO DUEN INPAKTUA	
Adierazlea	Konpromisoa
Sortutako lanpostu konbentzional kopurua	5
Sortutako gizarteratze eta laneratze lanpostu kopurua	10
Hautagaitza prozesuetan parte hartu duten pertsona kopurua	120
Akonpainamendu soziolaborala jasoko duten pertsona kopurua	10
Gaitasun soziolaboralak eta zeharkako gaitasunak lortzeko formazio kopurua	6 formazio
SORTUTAKO LANPOSTUEN ITZULERA SOZIALA (€ urtean)	
Sortutako lanpostuen bidez ordainduko diren soldatak (soldata gordinak)	306.279,37 €
Enpresaren konturako gizarte segurantza (soldata gordinen %33,6a)	154.984,74 €
Aurrezki soziala (pertsonek bestelako prestazio edo baliabide publikoak ez erabiltzeagatik lortutako aurrezkia. Bataz besteko erreferentziatzat 1.200 € hartuz hilabetean)	144.000 €
Guztira	**605.264,11 €**
INPAKTU EKONOMIKOA	
Bertatik Elikatuz SL-ren promotoreek egindako EKARPEN PROPIOA	117.000 €
Bertatik Elikatuz SL-ek aktibitatea martxan jartzeko egingo dituen INBERTSIOAK:	126.000 €

ESKU4cc632d8-9f6b-4483-8063-e701e75ab9b2

Bertatik Elikatuz SL-ek aktibitatea martxan jartzeko egingo diren AZPIKONTRATAZIOAK	45.000 €
Eraldaketa gunearen eta sukalde zentralaren hornidura gastuak (seguruak, argindarra, ura...)	38.000 €
Eraldaketa gunearen eta sukalde zentralaren lehengaietan gastuak	97.000 €
GUZTIRA	**423.000 €**

3.1. HERNANIKO 1GO SEKTOREKO EKOIZPENETIK ERALDATUKO DITUEN PRODUKTU ETA KOPURUAK:

- Behi Esnea. +-100.000L/urtean.
- Ardi Esnea+- 500L/urtean (jogurtarentzat)
- Arkume haragia: 120 arkume/urtean.
- Behi/txekor haragia: +-8.000kg/urtean.
- Barazkiak: 4.500kg eta sortaka kontatzen diren beste hainbat produktu.

4. DIRU-LAGUNTZA ZENBATEKOA ETA ORDAINTZEKO ERA:

- Hernaniko udalaren Diru-laguntza:

Zenbatekoa eurotan: 50.000 euro.

Partida zenbakia (diru-laguntza izenduna): 1 02.471.03.439.00 2023 DIRU-LAGUNTZA HITZARMENA ELIKATUZ.

- Ordainketa modua:

Diru laguntza 4 zatitan ordainduko da: martxoa, ekaina, iraila, abendua.

Urteko lehen ordainketa burutzeko, urteko justifikazioa aztertu ondoren Saileko Teknikariak txostena emango du, eta hala badagokio, alkateak ebazpena emango du diru-laguntza onartuz.

5. HITZARMENAREN INDARRALDIA ETA LUZAPENA:

Hitzarmen hau sinatzen den egun berean sartuko da indarrean, eragin ekonomikoa **2023ko** urtarrilaren 1etik, indarraldia 2026ko abenduaren 31 artekoa izango da.

Hitzarmena luzatu ahal izango da, berariazko ebazpena arrazoitua emanez, gehienez ere lau urtez.

ESKU4cc632d8-9f6b-4483-8063-e701e75ab9b2

6. JARRAIPEN ETA KONTROLERAKO BATZORDEA:

Batzordea eratuko da sinatzaileen arteko lankidetzarako esparrua, hartutako konpromisoak betetzeari buruzko jarraipen eta kontrolerako, bai eta hitzarmena betetzeko sortzen diren interpretazio arazoak ebazteko.

Batzordea gutxienez urtean lau alditan bilduko da.

Udalaren partetik ordezkariak: alkatea edo arloko delegatua eta Saileko udal teknikaria.

7. JARRAIPENERAKO ADIERAZLEAK:

Hitzarmen honen Seigarren atalean xedatzen den jarraipen eta kontrol lana burutzeko, "Bertatik Elikatuz Laneratze enpresaren konpromisoak" dokumentuan (eranskina) eta hitzarmen honen 3 atalean jasotako adierazle kuantitatibo eta kualitatiboak hartuko dira oinarri.

Informazio horren baitan Adierazleen Fitxa eredua osatuko da (eranskinean), kontrol eta jarraipenerako tresna gisa.

8. DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA:

Urte bakoitzeko diru laguntza epe honetarako zuritu beharko da: urtea bukatu eta bi hilabetera, urte bakoitzeko otsailaren 28rako.

Honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da diru-laguntza zuritzeko:

- Hartutako konpromisoak betetzen direla justifikatzen duen jarduketa-memoria, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak adierazita. Zehazki, 6 atalean xedatu diren adierazleen garapena.
- Hitzarmena betearaztearen ondoriozko gastuak justifikatzen dituen memoria ekonomikoa, honako hauek dituena: galdu irabazien kontua eta Sozietateen gaineko Zergaren aitorpen osoa.
- Proiektua finantzatzeko beste iturri batzuen ekarpenari buruzko memoria.
- Zerga betebeharren ziurtagiriak: Foru Ogasuna eta Gizarte Segurantza.

9. ONURADUNAREN AITORPENA:

Onuradunak aitortzen du ez dagokiola diru-laguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan diru-laguntzaren onuradun izateko ezarrita dauden debekuetako bat ere.

Onuradunak egiaztatzen du egunean dagoela zerga betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez, eta ez duela behartze bidean itzultze prozedurengatik ordaintzeke dagoen diru-kopururik. Era berean, aitortzen du

ESKU4cc632d8-9f6b-4483-8063-e701e75ab9b2

ez dagoela sartuta behartze bideko kobrantzako prozeduretan, Udalarekin edo haren erakundeekin egindako zorrak direla-eta.

10. HELBURU BERA DUTEN BESTE DIRU-LAGUNTZA, LAGUNTZA, DIRU-SARRERA EDO BALIABIDE BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA EDO BATERAEZINTASUNA:

Diru-laguntza hau bateragarri izango da edozein administraziok edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berarekin emandako diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin nahiz baliabideekin. Betiere, aintzat hartu beharko da diru-laguntza edo laguntza horiei dagokien arauetan ezarritakoa. Hala ere, diru-laguntzen Lege Orokorreko 19.3 artikuluari jarraiki, emandako diru-laguntzaren zenbatekoa (bai bakarrik, bai beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera) ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.

11. KONTABILITATE LIBURU ETA ERREGISTROAK, DIRU-LAGUNTZA EGOKI JUSTIFIKATZEA BERMATZEKO ETA FINANTZAK KONTROLATZEKO ESKATUAK:

Onuradunak jardueraren gastu eta sarrera guztiak kontabilizatu beharko ditu. Kontabilitate liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako agiriak izan beharko ditu, behar bezala ikuskatuak, aplikatzekoa zaion merkataritzari eta sektoreari buruzko legedian xedatua den moduan. Justifikatzeko agiriak gorde beharko ditu, egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko, lau urtez.

Era berean, laguntza eman beharko die Udal Administrazioko organoei, eta haiek eskatutako agiri guztiak eskuratu beharko dizkie; berdin jokatu beharko du Europako Batasuneko arauen arabera finantza kontroleko eginkizunak dituzten organoekin ere.

12. APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE JURIDIKOA:

Diru-laguntza hau arautuko du, diru-laguntza emateko irizpen honetan ezarritakoak ez ezik, Diru-Laguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) eta lege horretako araudia onartzeko Errege Dekretuan (887/2006 Errege Dekretua, 2006ko uztailaren 21ekoa) ezarritakoak, bai eta Udal Diru-laguntzen araudiak.

13. ESPEDIENTE HONI ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTUAK:

- Dokumentu hauek Batzorde/Plenorako egon behar dute prest.
- Dokumentu guztiak SINATUTA.
- Proiektuaren Jarduera Plana.
- Galdu Irabazien Kontua 2023-2024 (Taula ulertzen laguntzeko azalpen labur batekin).
- Proiektuaren konpromisoak biltzen dituen dokumentua eta Adierazleen Fitxa.

ESKU4cc632d8-9f6b-4483-8063-e701e75ab9b2

- Onuradunaren estatutuak eta dagokion erregistro administratiboan duen inskripzioaren kopia.

- Saileko teknikariaren Justifikazio Txostena.

- Zerga bete-beharren ziurtagiriak: Ogasuna eta Gizarte Segurantza.

- Banku kontuaren titulartasuna akreditatzen duen agiria.

Aurreko guztia irakurri ondoren eta adostasunaren seinale, bi aldeek agiri hau sinatzen dute, bi aletan baina ondorio bakarrarekin, goian adierazitako lekuan eta egunean.

BERTATIK ELIKATUZ SL erakundearen izenean

78871117T JON AMALLOBIETA (R: B10745008)

Firmado digitalmente por 78871117T JON AMALLOBIETA (R: B10745008)
Fecha: 2023.04.19 14:12:18 +02'00'

Sin. JON AMALLOBIETA ZUGAZARTAZAR

HERNANIKO UDALAREN izenean

Sin. XABIER LERTXUNDI ASTEASUINZARRA

34092044H FEDERICO PACHA (R: B75104430)

Firmado digitalmente por 34092044H FEDERICO PACHA (R: B75104430)
Fecha: 2023.04.20 09:52:28 +02'00'

Sin. FEDERICO PACHA GOICOECHEA

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU4cc632d8-9f6b-4483-8063-e701e75ab9b2**
Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010***
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010***